

BALIO PROPOSAMENA

Gizateriaren psikologoak funtsezkoak dira sufrimendua arintzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko. Gero eta beharrezkoagoa da osasun psikologikoko baldintzen prebentzioa eta esku-hartzea.

Azken urteotan, batez ere 2020tik aurrera, depresio larriko eta antsietateko kasuak ia % 30 igo dira. Normalean, minen bat edo sufrimenduren bat dugunean, medikuarengana jotzen dugu hura tratatzeko. Hala ere, badira beste osasun-arazo batzuk ere, hesteetako edo arnasetako gaixotasunak bezain erraz bereizten ez direnak.

Depresioa eta estresari buruz hitz egiten ari gara. Horregatik, mediku gisa, osasun mentaleko espezialistak funtsezko zeregina du. Antsietate- eta depresio-nahasmenduak gero eta ohikoagoak dira izu-krisiak gertatzen direnean. Hori larriagotu egin daiteke pertsona horrek bere nahasmendua tratatzeko tratamendu egokia ez badu, eta kasu batzuetan pentsamendu suizidak ere sor daitezke. Suizidio kasuak % 7,4 igo dira 2019tik. Horregatik, funtsezkoa da psikoterapia normalizatzea hain arazo handiari aurre egiteko.

Horretarako, enpresa bat sortu dugu, P Plana. Mundu guztiak psikologiarako arreta eskubidea izatea nahi dugu. Inolako arazo ekonomikorik edo itxaronaldi luzerik gabe artatuak izatea. Jendeari behar dituen gauzak erakutsiko dizkiogu behar duten guztiei laguntzeko. Seme-alabei lagundu nahi dieten gurasoei, eta alderantziz. Beren lanek eragindako estresetik irten behar duten helduei. Laguntza behar duen eta beste askok bezala jaso ezin duen edonori. depresio eta suizidio tasa horiek jaistea eta gizarte honetan hain arazo larria izateari uztea nahi dugu.

Uste dugu jendea oso kontziente dela psikologo eskasiaren arazoaz. Psikologo pribatuak askotan garestiegiak dira eta publikoetan jende gehiegi daude itxaroten, eta gure enpresa prest dagoenez arazo hori konpontzeko psikologo gehiago prestatuz, jendeak negozioa babestu nahiko duela pentsatzen dugu, eta lan egiteko eta negozioaren parte izateko gogoz etorriko dira, psikologoen lana konpontzeko. Kualitatiboa da gure marka, bezeroekin harremana oso estua izatea bilatzen dugu eta praktikako psikologoak ekarriko ditugu, horrela metodo desberdina erabiliko ditugu.

Gure Marketin Mix hurrengoa da:

- **Produktua:** gure produktua sinbolikoa da, ez dugu ezer materiala edo handitua, guk eskaintzenduguna laguntza psikologikoa da, horrela gure bezeroen postazun emozionala lor dezakegu. Gure markaren izena Plan P da, eta honen logotipoa garuna bat da, honi laguntza eskaintzen diogulako.
- **Prezioa:** Gure zerbitzua desberdina izatea nahidugu arrazoi bat dela eta; psikologo pribatua garestiegi delako; ezaugarri kuantitatiboa da prezio on bat

mantentzen saiatuko gara, prezioa kostuen arabera izango da, eta gure helburua ez da diru asko izatea, horregatik prezioak ez dira altuegiak izango.

- **Banaketa:** gure banaketa kanala zuzeneko da, gure bezeroei eskainiko diegulako gure zerbitzua, eta horregatik kanal laburra da.
- **Promozioa:** gure zerbitzua ezagutzera emateko hau promozionatzea oso garrantzitsua da. Alde batetik iragarkikoa dugu zerbitzua irradian, eta hau esatean pentsatzen dena da gazteek irrateria ez dutela entzuten da, baina guk egingo duguna da Los40-an eta Cadena 100-an izango da gure publizitatea, gazteentzako musika ipintzen dutelako eta horrelabezeroak lor ditzakegu. beste aldetik sarze sozialak irekiko ditugu (Facebook, Instagram, YouTube, Twitter,...) hor jende gazte ugari baitago.